

Euskal Herriko Jardunaldien Adierazpena

Euskal Herriko Jardunaldietan Baionako Merkatal Ganbaran bildurik 2012ko irailaren 29 honetan,

- ✧ Kontuan hartuz, 15 urtez Euskal Herriko gizarte zibilaren sektore anitz eta hautetsiak bildu dituen lurralde gobernantza esperientazioaren arrakasta;
- ✧ Ikusiz, 2010eko abenduko lurralde erreformaren ondorioz “herriak” (eta besteak beste Pays Basque “herria”) desagertuko direla baina bereziki kontuan hartuz gaur egun gaindituak diren gobernantza egituren mugak ;
- ✧ Kontuan hartuz, Euskal Herriko biztanleriak eta hautetsi anitzek mobilizazio desberdinen bidez (izenpetze biltzeak, herritar foroak, manifestaldi desberdinak, herritar kontsulta) gai horri buruz duten etengabeko eskakizuna ;
- ✧ Kontuan hartuz, adostasunean eta modu eraikitzailean Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak azken hilabeteotan daramaten gogoeta eta eztabaida lana, baita ere bi egitura horiek eman iritzia eta onartu mozioa ;
- ✧ Kontuan hartuz, Euskal Herrian (bake prozesuaren hastapenak) nahiz frantses Estatuan (dezentralizazioaren III. atala) gertatzen ari diren aldaketa garrantzitsuak ;

Publikoki eta irmoki adierazten dugu

- ✧ gaur egun baldintza guziak bilduak direla Ipar Euskal Herriaren ezagupen sinboliko eta politikoaren eskakizunari erantzun egokia emanen dion egitura politiko iraunkorra sortzeko ;
- ✧ instituzio horren sortzea aitzina eman beharreko urratsa dela lurraldearen kudeaketa hobetzeko eta lurralde honetako herritar guzien beharrei erantzunen dieten elkartasunezko politikak bideratzeko ;
- ✧ egitura horren sortzeak anitz lagunduko duela euskararen koofizialtasuna lortzen, eskumen zabaleko unibertsitatea sortzen, laborantza ganbara sortzen baita laborantza gidatzeko lurralde batzordea (CTOA) xutik ezartzen ;

- ✧ egiturarik egokiena frantses Konstituzioaren arabera Estatutu Bereziko Lurralde Elkargoa dela ;
- ✧ Euskal Herriko Lurralde Elkargoa(k),
 - ✧ gaur egungo “Pays Basque” herria-ren eremu geografikoan gauzatuko da, 1997ko erabaki prefetoralak definitu bezala,
 - ✧ denboran moldakorra izanen da, bere antolaketan zein eskumenetan, ibilmoldeari buruzko beharrezko ebaluaketak egin eta Euskal Herriko biztanleen nahiaren arabera,
 - ✧ eskumen propioak ukanen ditu, Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak identifikatu lurraldearen beharrei egoki erantzuteko,
 - ✧ eskumen horien artean gaur egungo departamenduko eskumen guziak ukanen ditu, Lurralde Elkargo horrek beste maila administratiborik sor ez dezan,
 - ✧ prestatzen ari den dezentralizazioaren III. atalak sorturik izanen da eta hemendik bi urtera kontsulta bidez biztanleek onarturik izanen da, bere lehen asanblada 2015eko hauteskundeen kariatara herritarrek zuzenki hautatzeko gisan.

Baionan egina, 2012ko irailaren 29a

<i>Izena</i>	
<i>Deitura</i>	
<i>Herria</i>	
<i>Funtzioa</i>	

Izenpedura :